

ZEUS SOFTWARE:  
13 URTE  
BERRITZEN ETA  
BIDEOJOKOAK  
EGITEN

ZEUS SOFTWARE:  
13 AÑOS DE  
INNOVACIÓN Y  
VIDEOJUEGOS





# ZEUS SOFTWARE: 13 URTE BERRITZEN ETA BIDEOJOKOAK EGITEN

Euskadin eta Nafarroan bideojokoen garapenaren hastapenak antz handia dauka espainiar estatuko beste hiri batzuetan, hala nola Madrilan, Bartzelonan, Gijonen, Granadan edo Santa Cruz Tenerifekoan gertatutakoarekin. Espainiako merkatura iritsitako lehen mikroordenagailuek, batez ere ZX Spectrumek<sup>1</sup>, etxeko informatika irauli zuten eta etorkizuneko bideojokoen sektorearen oinarriak jarri zituzten.

Zenbait iturri bat datoz eta diote Paco Pastorrek sortutako 'La Pulga' (1983)<sup>2</sup> izan zela Espainiako lehen bideojokoa; Erresuma Batuan ere saldu zen, 'Bugabo' izenaz. Lehen euskal bideojokoa denboran kokatzea, ordea, lan zailagoa da. Hasiera batean, uste zen Zeus software garapen estudio donostiarrek sortutako 'Hundra' (1987) zela aisia elektronikorako lehen *made in Euskal Herria* programa.

Arkeologia egin eta pare bat urte atzerago begiratu behar da 'Frogger' aurkitzeko. Juan Jose Epalza bizkaitarrak garatu zuen eta 1985eko martxoaren 26an argitaratu zen, *MicroHobby* aldizkari espezializatuaren barruko orrialdeetan<sup>3</sup>. 'Frogger' 1981eko jolas-makina klasiko baten<sup>4</sup> konbertsioa da, ZX Spectrum 48Kra. Makina horretan, jokalaria igel bat gidatu behar zuen etxeraino. Hori egiteko, autoak saihestu behar ditu gainezka dagoen errepide bat gurutzatu bitartean, eta gero arriskuz betetako ibaia zeharkatu.

Epalza programazioaren munduak harrapa zezala utzi zuen euskal nerabeetako bat izan zen, beste askoren artean, eta denboraren

---

1. Sinclair ZX Spectrum 8 biteko ordenagailua izan zen. Sinclair Research konpainia britainiarrek fabrikatzen zuen eta 1982ko apirilaren 23an atera zen merkatura. Erresuma Batuan eta Espainian mikroordenagailurik ospetsuenetako bat izan zen laurogeiko hamarkadan.

2. Paco Portalorekin batera programatu zen ZX81 batean.

3. *MicroHobby*, 21. zk. 9.10. or.

4. "Frogger"en mundu mailako banaketarako lizentzia Sega/Gremlin-ena izan zen eta Konamik garatu zuen.

poderioz, beste zaletu batzuekin elkartu zen joko berriak sortzeko. Lan horiek Espainiako softwarearen urrezko aroa<sup>5</sup> esaten zaionaren barruan geratu dira ezinbestean.

Talde horietako bat, garrantzitsuena lorpenei eta proiektu bolumenari dagokienez, Zeus Software izan zen. Horretarako, Donostian kokatu behar da, Altza auzoan, hain zuzen ere.

## Hastapenak

Ricardo Puertoren (1970) eta Raul Lopezen (1972) bideojokoen mundura sartzeko modua oso antzekoa da. Biak bizi ziren Donostiako Altza auzoan eta *MicroHobby* aldizkariak eragin zien bideojokoetarako grina. "Beti izan nuen interesa tekla dituzten gailuetan eta, garai hartan, mikroordenagailuei buruzko aldizkari espezializatuak argitaratzen hasi ziren, haien artean *MicroHobby*<sup>6</sup>. Nire ikastetxetik gertu aldizkari-denda bat zegoen. Egun batean, atean eskegita, aldizkari horren laugarren zenbakia jarri zuten. Oso deigarria egin zitzaidan eta erosi egin nuen", gogoratu du Puertok.

Hala, handik gutxira Zeus Softwareko programatzaile bihurtuko zen hura, Spectrum ordenagailuen mundua ezagutzen hasi zen. "Hain liluratuta utzi ninduen aldizkariak, ezen aurreko hiru zenbakiak erosi baintuen".

Bestalde, Raul Lopezek azaldu duenez, OHOk zortzigarren mailan zegoen argitalpena ezagutu zuenean. "Lehen aldiz ikusi nuenean txunditu egin ninduen, Basic lengoaiarekin<sup>7</sup> zeure jokoak sorzenitzakeelako".

---

5. Esapide hori bideojokoen sektoreko prentsa espezializatuak sortu zuen eta, gutxi gorabehera, Espainian 1983 eta 1992 artean egindako ekoizpena biltzen du.

6. Sinclair ZX Spectrumi buruzko astekaria zen, HobbyPress argitaletxeak (egungo Axel Springer) argitaratua, 1984ko azarotik 1992ko urtarrilera.

7. 1964an John George Kemeny-k eta Thomas Eugene Kurtz-ek sortutako programazio hizkuntza. Gaur egun, Basic oraindik dago oso zabaldua.

Ordenagailu haiek ematen zituzten aukerek harrituta, nerabe biek bana erosteko eskatu zieten beren gurasoei. "Azkenean ZX Spectrum Plus modeloa erosi zidaten, merkatura irten berria. Gogoratzen naiz Valentziara egin genuen ikastetxeko ikasketa bidaiarekin batera iritsi zela", aipatu du Lopezek. "Geneukan ELBE telebista batera konektatu eta Basicen programatzen hasi nintzen, ez baitzekarren jokorik. Biharamunean, ordea, ikasketa-bidaiara joan behar nuen, eta ez nuen nahi. Spectrum harekin geratu nahi nuen", dio barreka.

Valentzian zegoela, amak ikasketa-bidaiarako emandako dirua kasetea zekarten aldizkari espezializatuak erosteko erabili zuen Lopezek. "Kioskoetan begira nindoan. Azkenean bost edo sei erosi nituen. Bidaiatik itzuli orduko, noski, Spectrumari heldu nion".

Bestalde, Ricardo Puertok zailtasun handiagoak izan zituen bere gurasoak konbentzitzeko. Zenbait hilabetez, idazmakinez pasatu zituen aldizkarietan argitaratzen ziren Basicen programak. "Hala idazmakinez idazten eta programazio lengoaiak nola funtzionatzen zuen ulertzen ikasi nuen".

Ekinaren ekinez, azkenean Spectruma Puertoren etxera iritsi zen. *Gomazko bat zen*<sup>8</sup>. "Ez zeukan ez monitorerik ez ezer. Telebistara konektatu behar nuen eta zintak kargatzeko kaseterik ere ez neukan. Ordenagailuan idazten nituen programak ezabatu egiten ziren Spectruma itzaltzen nuenean eta, beraz, koadernoan idatzi behar izaten nituen. Nahiko gogaikarria zen, baina oso lagungarria egin zitzaidan nola programatu aztertu, gogoan gorde eta ikasteko"

Hala ezagutu zituen *pokeak*<sup>9</sup>. Puertok azaltzen duenez, kodean elementu bat, zenbaki bat edo letra bat aldatuz gero, zerbait aldatzen zen jokoan. "Denbora-pasa moduko bat zen. Halako helbidetan halako balioa jartzen banuen pantailaren kolorea aldatu edo soinu bat egiten zuela ikasi nuen. Buruz nekizkien denak".

---

8. ZX Spectrum 16K/48Kren ezizena, banakako gomazko piezaz osatutako teklatu bereizgarriagatik.

9. Amarruak bideojokoetan; abantailak lortzeko kodean agindu bat edo batzuk aldatzean datza.

Aldizkariak zekartzaten jokoetatik harago, Ricardo gazte hura konturatu zen dendetan erosten zituen bideojoko haiek ez zeudela Basicen eginda eta zerbait "desberdina" zeramatela: makina-kodea edo lengoaia mihiztatua. Lengoaia berriak nola funtzionatzen zuen jakiteko, Puertok zenbait liburu eskuratu zituen; haien artean, *Lenguaje máquina avanzada para ZX Spectrum*<sup>10</sup> da azpimarratzekoa. "Liburuak eragin handia izan zuen nire programatzeko metodologian, gauzak egiteko modu zuzena zela uste nuelako".

Ricardo Puertok kodea pasatzen zuen bitartean, Raul Lopezek ordenagailu bidezko diseinu grafikoan jarri zituen bere esfortzu guztiak. "Txikitan marraztea nuen gogoko, baina paperean egiten nuen. Hainbeste, ezen gurasoek aerografozko marrazketa-ikastaroetan izena eman baitzidaten, baita garai hartan Donostiako erdialdean gazte elkarte batek eskaintzen zuen ordenagailu bidezko marrazketa-ikastaro batean ere <sup>11</sup>". Hala jakin zuen bazirela marrazteko programak, hala nola 'The Art Studio'. "Liluragarria zen, eta infernua aldi berean, ez zegoelako sagurik, kurtsoreekin mugitzen zinen eta pixelez<sup>12</sup> pixel marraztu behar zenuen, ordenagailuak zituen mugekin".

Muga horiek batez ere Spectrumen gaitasunei zegozkien; izan ere, karaktere bakoitzean kolore bat jartzen baino ez zuen uzten, eta hura, bestalde, 8x8 pixeleko irudi batek osatzen zuen, eta atzealderako ere kolore bakarra, "hortaz, guztira bi kolore ziren multzo bakoitzeko", Lopezek azaltzen duenez. "Horixe da 8 eta 16 biteko jokoen xarma handietako bat".

Garai hartan, Ricardo Puertok eta Raul Lopezek ez zuten elkar ezagutzen, eta haien arteko adin aldea zela-eta, ez ziren batera aritu ikastetxean edo institutuan. Bien lagun komun batek jarri zituen harremanetan. Lopezek gogoratzen duenez, "lagun batek esan zidan auzoan ordenagailua zeukan eta programatzen zuen beste mutil bat ezagutzen zuela. Orduan ezagutu nuen Ricardo. Bideojoko bat

---

10. *Lenguaje máquina avanzado para ZX Spectrum*, David Webb. Anaya Multimedia argitaletxea. Urtea:1985.

11. Lopezek dioenez, Kutxa aurrezki kutxaren egoitzara joaten zen

12. Irudi digital baten kolore-puntuak

garatzen ari zen. Pantaila batetik bestera mugitzen zen pertsonaia bat zen”.

“Camelot Warriors’ (Dinamic Software, 1986) moduko bat zen --erantsi du Puertok-- eta grafiko batzuk egitea proposatu nion. Bi egun geroago berriz elkartu ginen eta eginda zeuzkan gauzak erakutsi zizkidan. Harrezkero lanean hasi ginen”. Haiiek izan ziren ‘Hundra’ Zeus Softwareren lehen bideojoko komertzialaren oinarriak.

## HUNDRA

Garai hartan, Raul Lopez eta Ricardo Puerto 14 eta 16 urteko nerabeak ziren, hurrenez hurren. Haien bizitzak Lanbide Heziketako (LH) klaseen, institutuaren eta jolas aretoen artean mugitzen ziren. Euren lehen bideojokoa sortu asmoz, Lopezek eta Puertok nork bere gurasoen etxean lan egiten zuten. “Paper laukidunean egiten nizkion grafikoak eramaten nituen nik. Gero ‘The Art Studio’tik pasatzen nuen, kasete zinta batean grabatu eta Ricardori etxera eramaten nion”, dio Lopezek.

‘Hundra’ sortzeko, bi donostiarrek beren astialdiko orduak eta orduak ematen zituzten Spectrumeko jokoetan, hala nola aipatutako ‘Camelot Warriors’ delakoan, eta haietatik hartzen zituzten erreferentziak. “Konturatzen bazara, ‘Hundra’ko pertsonaia, grafikoak, estiloa, pantailen forma eta mapak haren oso antzekoak dira”, dio programatzaileak. “Baditu ‘Abu Simbel, Profanation’ (Dinamic Software, 1985) izenekoaren zertzeladak ere”.

Zeus Softwareko grafistak ‘The Sacred Armour of Antiriad’ (Palace Software, 1986) ere gogoratzen du, “teknikoki oso arintasun eta grafiko erakargarriak zeuzkan”. Zentzu horretan, Lopezek onartu duenez, azken joko horren erreferentziarekin egin zituzten pertsonaia nagusiaren mugimenduak. “Ez neukan ideiarik nola animatu eta, marraztu eta marraztu, ikasi egin genuen. Beste jokoei erreparatu eta nola egiten zen aurkitzen saiatzen ginen”.

Autoikaskuntza etengabea izan zen Zeus Software estudioan, aktibo jardun zuen 13 urteetan. Hastapenetan, Donostia inguruko

programatzaile-taldeak kontaktatzen saiatu ziren, jakintza trukatzeko, baina ez zuten zorterik izan.

Lehen joko hartan murgilduta zeudela, izenik gabe zeukatela jabetu ziren. 'Hundra' asteburu batean bururatu zitzairen. "Oso pelikula zaleak ginen", azaldu du Zeusko grafistak. "Auzoko bideoklub batera sartu eta pelikula bat alokatu genuen; 'Hundra'<sup>13</sup> zeukan izena". "Sekula ere ez genuen pentsatu pelikularen izena ateratzeagatik arazorik eduki genezakeenik".

Mitologia grekoa ere inspirazio iturri izan zen donostiar estudioaren izenerako: Zeus Software. "Hasieran ez genuen konpainiarik sortu, nahi genuena gure jokoak Dinamic Software<sup>14</sup> diseinatzen ari zirenetatik bereiztea zen", zehaztu du Lopezek.

Oro har, xehetasunetan sartu gabe, bi gazteek istorio oso sinplea sortu zuten 'Hundra'rentzat: protagonistak bere aita askatu behar zuen, bahituta baitzegoen. "Egia esan, garai hartako gehienak bezala, kontu bakarrean zetzan jokoa: mapako punta batetik bestera iritsi behar zen zenbait plataforma gaindituz. Ez zeukan besterik", azaltzen dute.

### **'SuperBuggy', etenaldi bat 'Hundra'ren garapenean**

'Hundra' garatzeko prozesuaren etenaldietan, Zeus Softwarek argitaratutako lehen bideojokotzat har daitekeena sortu zen. 'SuperBuggy' (1986) "inork ezagutzen ez duen jokoa" da, diote haren sortzaileek. "Egia esan, egin genuen lehen jokoa izan zen baina akatsak zeuzkan".

'SuperBuggy' ikuspegi zenitaleko auto jokoa zen eta ibilgailua labirintoetatik gidatu behar zen. "Helburua ausaz agertzen ziren banderak jasotzea zen, haize zirimolak saihesten saiatzen zinen bitartean". Raulek

---

13. B serieko pelikula bat da. 1983ko ekoizpen italiar-espainiarra, ezpata eta sorginkeriakoa, protagonista Laurene Landom aktorea zeukana, amazona gerlari baten paperean, Matt Cimberrek zuzenduta.

14. Dinamic Software, banatzaile eta ekoizlea, 1983an sortu zuten Pablo, Nacho eta Victor Ruiz anaiek. 1992 arte jardun zuten



eta Ricardok onartzen dutenez, jokoak zeukan onena autoa gidatzea zen, "inertzia apur bat zeukalako, eta labirintoan irristatzeak egin zenitzakeen". "Orduak eta orduak ematen genituen jolasten".

Jokoa ZX Spectrum 48Kra garatu zen. "Akatsak izan arren, amaitutzat jo genuen. Grabatu, kopiak egin zinta garbietan, eskuz egindako marrakzi baten azal fotokopiatua jarri, eta geure kabuz jarri genituen salgai. Hiri erdialdean egiten zen azokara joaten ginen eta han saltzen genituen geure jokoak eta gure eskuetara iristen ziren beste batzuen kopiak". Puertok onartzen duenez, ordea, "'SuperBuggy' ren hamar kopia baino gehiago ez genituen salduko".

### **Hitzarmena Dinamic Softwareekin**

'Hundra' garatzen zenbait hilabete eman ondoren, une batean jokoa oso aurreratuta zeukaten donostiarrek. "Mapa osatuta zegoen, pantaila guztiak zeuden eginda eta, grafikoei dagokienez, guztiz amaituta zegoen; hortaz, jokoak argitaratzen zituzten enpresa espainolei igortzea pentsatu genuen". Zenbait aukera aintzat hartu eta azkenean Dinamic Softwarea bidaltzea erabaki zuten.

"ERBE Software<sup>15</sup>, Opera Soft<sup>16</sup> eta DRO<sup>17</sup> konpainien ia joko guztietan jolastuak ginen. Baina Dinamic zen gure gogokoena eta harekin identifikatzen ginen gehien. Horregatik bidali genion", onartu du Ricardo Puertok.

"Jokoa zinta batean grabatu eta 'Hundra' ren bi kopia egin genituen paper laukidunean, eskuz dena. Jokoa pasatzeko moduari, oztopoei edo kontuz ibili beharreko puntuei buruzko jarraibideak ere sartu genituen". Puertok berak dioenez, gaur egun ere badaukate bi kopia horietako bat. "Kartazal batean guztia jarri eta zuzenean igorri genion Dinamic-i".

---

15. Espainiar softwarearen urrezko aroko Espainiako bideojoko garatzaile eta banatzailea, Andrew Bagneyk eta Formula V-ko abeslari Paco Pastorrek 1984an sortua.

16. Espainiako bideojoko garatzaile eta banatzailea. 1987an sortua, Indescompek porrot egin ondoren.

17. 1984an sortutako espainiar software banatzailea.

Zenbait egun geroago, banatzaileak Madrilgo Dorrean zeuzkan bulegoetara iritsi zen paketea. Hiru anaietatik, Victor Ruizek zeukan Dinamic Softwaretik kanpoko garapen-taldeak kudeatzeko eta konpainiara iristen ziren jokoak probatu eta baloratzeko ardura. "Gogoratzen naiz iritsi eta ia ez zela ukitu ere egin behar". Beraz, Ruizek Raul Lopezen gurasoen etxera deitu zuen Zeus Softwareri bideojokoen garapenaren espainiar industrian bete-betean sartuko zituen hitzarmena proposatzeko.

Ezin hobeto gogoratzen dute dei hura bi gipuzkoarrek. Arratsaldeko lehen orduetan izan zen. Ricardo Puerto Raulen etxetik igaro ohi zen institutua amaitu ondoren. Egun batean, grafista telefonoz ari zen, "nigana bihurtu eta Victor Ruiz zela esan zidan. Zurbil geratu nintzen!", kontatzen du Puertok. "Esan zidan gure jokoak jaso berri zuela, asko gustatu zitzaiola eta amaitzen bagenuen argitaratu egingo zigutela", erantsi du Lopezek. "Pozak txoraturik geunden".

Zeus Softwareren baiezkua lortuta, Dinamic Softwarek zeukan marketin makineria guztia abiarazi zuen Victor Ruizek. Komunikabideetako informazio urriaren aurrean, espainiar softwarearen urrezko aroan, bideojokoen azalek egiten zuten aldea salmentetan. Ruiz anaiek ondo zekiten hori eta, beraz, Alfonso Azpiri (Madril, 1947) istoriogilea kontratatu ohi zuten euren jokoetarako. Beste pertsonentzat, aldiz, Norma Editorialekin<sup>18</sup> zuten hitzarmena baliatzen zuten; haren bidez, Luis Royo (Teruel, 1954) marrazkigile aragoiarraren katalogoko irudiak erabil zitzaireten eta, gainera, merkeagoak ziren.

'Hundra'rentzat, Dinamic-ek amazona bular-joriaren irudia hautatu zuten, ontzi bikingo batean igota; elementu horiek ez ziren agertu jokoaren lehen bertsioetan --hasieran arkulari bat zen--; gerora gehitu zitzaizkion. Jokoaren logotipoa Madrilgo konpainiaren barneko ilustratzaileak, Ricardo Machucak, sortu zuen.

Ruiz anaiek marketinerako beste elementu bat erabiltzen zuten, garai hartako aldizkari espezializatuek bere egin zutena, *FX syncro sprites*

---

18. Egun komikiak argitaratzen dituen espainiar enpresa, 1981ean sortua. 1977an bere jarduerari ekitean, ordea, egileen ordezkari-tza-agentzia bezala ziharduen.

izenekoa, hain zuzen ere. Azken batean, Ricardo Puertoren programazio trikimailu bat zen, pertsonaiak pantailan oso leunki mugiarazten zituen.

Programatzaileak berak azaldu duenez, "pantaila edo monitorea pixelak goitik behera eta ezkerretik eskuinera eguneratzen dituen ekortzearen bidez dabil. Funtsean, jokoaren kodea doitu behar zen ekortze hori kontuan hartuta gauza zedin. Hala, irudiak ez dira moztuta agertzen eta mugimendua leunagoa da." Bestalde, Dinamicek garaiko aldizkari espezializatu nagusien barruko orrietan ere iragarri zuen 'Hundra'<sup>19</sup>.

Zeus Softwareko taldeak 1987ko amaiera aldera bukatu zuen 'Hundra' ZX Spectrumerako garatzen, eta Amstrad CPC eta MSXrako bertsioak egin zituzten. "Ordenagailuen hardwarea ahalik eta gehien baliatuko zuen egokitzapena egin nahi genuen", diote. Bestalde, Victor Ruizek azaldu duenez, jokoaren bertsio horiek guztiak egin behar ziren "kaudimen ahalik eta handiena eman zezan". Azkenean, jokoak 1988ko erdi aldera iritsi zen dendetara, 875 pezetan (5,26 euro) kasetean eta 1.750 pezetan (10,52 euro) disketean.

Espainiako merkatuan ez ezik, Frantzia, Alemania, Italia eta Erresuma Batuko dendetan ere banatu zen lehen euskal bideojokoetako bat izan zen, Dinamic Softwarek Mastetronic<sup>20</sup> konpainiarekin zeukan hitzarmen komertzial bati esker. "Nire anaia Pablo Ruiz Frank Hermanen laguna zen, eta hura zen Mastertronik britainiarraren sortzaileetako bat; hortaz, akordio batera iritsi ginen gure jokoak harekin lizentziazteko". Ingalaterran euskal bideojokoak urtebete geroago saldu zen, 1989an, arrakasta lerro baten bidez 2,99 liberatan<sup>21</sup> (3,57 euro).

Jokoak apaletara iritsi eta gutxira, donostiarrak jokoaren salmentak emandako lehen dirua jasotzen hasi ziren. "Royaltyengatik kobratzen genuen. Dinamicen salmenta kopurua zenbatetsi eta, kopuru horretatik, kasete bakoitzak balio zuenaren zati bat eramaten genuen". "Nire

---

19. Ikus *Micromaníaren* lehen aroko 34 eta 35. zenbakiak; eta *MicroHobbyren* 173.a.

20. Erresuma Barruko kostu txikiko ordenagailu jokoaren banatzailea, 1983an sortua.

21. Sinclair User, 81. zk., 11. or.

gurasoak poz-pezik zeuden nik lehen soldata kobratu ondoren. Adingabeak ginenez gero, kontu bat zabaltzeko eskatu behar izan genuen”, gogoratzen du Lopezek.

Dirua poltsikoan zutela, bi nerabeek ikasketak alde batera uztea erabaki zuten. Donostiar grafistak gogoratzen duenez, haren amari ai “bihotzekoak eman zion”. Puertoren etxean ere ez zitzairen erabakia gustatu. “Ez zegoen beste aukerarik. Argi neukan horretan jardun nahi nuela eta konpainia batek joko argitaratu zidala, bertan ordu pilo bat eman ondoren”.

‘Hundra’ *MicroHobby* espainiar aldizkariaren 1988ko ekainaren lehen hamabostaldiko 171. zenbakiaren azala izan zen, kategoria gorena jasota: bost *MicroHobby* izar. Kritika, ordea, ez zettorren bat horrekin. *MicroHobby* argitaratu zuenez, “programa ona da, grafikoak eta mugimendua ezin hobeto eginda daude eta atxikimendu-maila izugarria dauka”, baina “zailegia” zela kritikatu zuen<sup>22</sup>.

*Micromanía* espainiar aldizkariak ere bederatzir puntu eman zion hamarretik Zeus Softwareren lehen joko komertzialari, eta protagonistaren “bizkortasuna eta naturaltasuna” aipatu zituen, “arintasun osoz mugitzen da dekoratuen artean, maila grafikoko xehetasun oparoa dauka eta kolorearen erabilera fin-fina”<sup>23</sup>.

Atzerriko aldizkariak ez ziren hain onberak izan; esaterako, *Crashek* 33 puntu eman zion 100dik Ricardo Puerto eta Raul Lopezen jokoari. “Batere originaltasunik” ez izatea eta “grafikoki ozta-ozta” ibiltzea leporatu zioten. “‘Hundra’ plataformetako *Arcade* estiloko abentura bat da, luxurik eta, egia esan, zirrararik gabea”<sup>24</sup> argitaratu zuen argitalpenak.

Jokoak zenbait berrargitaraldi izan zuen eta zenbait paketetan saldu zen, Dinamicen beste titulu batzuekin batera. Une batean *MicroHobby*

---

22. *MicroHobby*, 171. zk. 37-40. or.

23. *Micromanía*, 2. aroko 1. zk. 21. or.

24. *Crash*, 61. zk. 66. or.

aldizkariak ere oparitu zuen 'Hundra' jokoa zinta batean, 1991eko udako zenbaki bereziarekin batera<sup>25</sup>.

## DELFOX

'Delfox' kasuak antz handia dauka 'SuperBuggy' rekin. Alde bakarra da, oraingoan, Dinamic Softwarek dendetara eramatea erabaki zuela. Zeus Softwareren joko txiki hori 'Hundra' garatu bitartean sortu zen. "Oso kontu sinplea zen: espazio-ontzi batek etsaien aurka tiro egin eta eszenatokitik mugitu besterik ez zuen egin behar. Izan ere, Ricardok egin zuen dena eta, beraz, ez zeukan grafikorik ia", gogoratu du Raul Lopezek. Azkenean, ordea, donostiar gazteak garapenean parte hartu zuen, hasierako kargako pantaila pixelez pixel marraztuz<sup>26</sup>, Ricardo Machuca ilustratzaileak egindako azalean oinarrituta.

Atzera begiratuta, programatzailearen ustez "etsaiak abiadura pixkanaka bizkortuz edo motelduz mugitzeko errutina bat probatzeko" egin zuen jokoa. "Gauza arrunta zen, baina bere gatza zeukan programa makina-kodean eginda zegoelako eta *spriteak*<sup>27</sup> sinkronizatuta zeuzkalako".

"Larri genbiltzan egun haietarako proiektua izan zen, erlaxatzeko zerbaitegin nahi nuen egun horietarako. Bospasei egunetan egin nuen", zuritu du bere burua programatzaileak. Jokoa ez zeukan mailarik. "Etengabe zomorroak hil besterik ez zenuen egiten".

Ricardo Puertoren esanetan, 'Delfox' Dominic Robinson britainiarrak egindako 'Zynaps' (Hewson Consultants, 1987) izeneko *Shoot 'em up*<sup>28</sup> batean dago oinarrituta. "Nahiko liluratuta nengoen joko horrekin ia pantaila osoan *scroll*<sup>29</sup> bat daukalako. Neure buruari galdetzen nion

---

25. *MicroHobby*, 212. zk.

26. "*Pantallas de carga: el bit hecho arte*": <http://www.elspectrumhoy.es/pantallas-de-carga-el-bit-hecho-arte/>

27. Bideojokoetan erabilitako grafiko mugikorra, objekturen bat irudikatzen duen bit-mapa (Wikipedia)

28. Martetarrak hiltzekoa

29. Irudien desplazamendua

ea nola zegoen eginda. Ezin nuen ulertu. Hamaika kalkulu egin arren, ez neukan informazio-kantitate hura hain leunki mugitzerik". Dioenez, jokoaren erraiak miatu zituen jakiteko nola zegoen programatuta. "Imajinatzen dut programazio trikimailu piloa zeukala".

Amaitutakoan, Puertok *MicroHobby* aldizkarira bidaltzeko aukeraz pentsatu zuen; izan ere, argialetxeak 40.000 pezeta (240,40 euro) eskaintzen zuen jokoagatik. Victor Ruizekin hitz egin eta jokoa hari erakutsi ondoren, ordea, Dinamicen % 100 *Dinamic*<sup>30</sup> izenez joko merke sail bat atera nahi zutela esan zion hark. Azkenean, Madrilgo argialetxeak 50.000 pezeta (300.51 euro) eskaini zion eta donostiarrak erreparo handirik gabe onartu zuen. 'Delfox' Dinamicen marka berri horren bigarren jokoa bihurtu zen hala. ZX Spectrum 48Krako bertsioan baino ez zen salgai jarri.

Hedabide espezializatuek ez zuten gupidarik izan jokoa aztertzean. *Microhobby*<sup>31</sup> "txakurraren putza" zela esan zuen, garaiko beste jokoen aldean zeukan "zailtasun urriagatik" eta garapena "izugarri errepikakorra" zelako. Donostiarrak bere erruduntasun zatia onartzen du. "Jokoak ez dauka ezer, pantailan mugitzen diren lau *sprite* dira".

## COMANDO TRACER

'Hundra' erabateko arrakasta pertsonal eta profesionala bihurtu zen Zeus Softwareko kideentzat. Pilak ondo kargatuta, royaltyetatik eskuratutako dirua eta hura garatzean lortutako eskarmentua izanda, hurrengo proiektua mamitzen hasi ziren. Hasiera batean ez zeukaten ezer pentsatuta, baina ordenagailuak, garapen-sistemak, dokumentazioa eta 'Hundra', 'Delfox' eta 'SuperBuggy' egiteko erabilitako material eta kode guztiak zeukaten.

Raulekin eta Ricardorekin hitz egitean, oroitzapenik errepikatuenetako bat da beren etxeetan ez zirenean programatzen ari, beren eskuetara

---

30. Dinamicen joko-lerro merke bat sortzeko egindako bigarren ahalegina zen. 1986an "Future Stars"ekin saiatu zen gauza bera egiten (<http://computeremuzone.com/ficha.php?id=392>)

31. *Microhobby*, 180. zk., 38. or.

iristen ziren joko guztiak probatzen aritzen zirela. Eta bestela, orduak eta orduak ematen zituzten Donostiako Altza auzoko jolas-aretoetan. Hala, bi gazteek gogoko zituzten jokoetako kontzeptuak jaso, bildu eta barneratzen zituzten, ondoren beren garapenetan aplikatu ahal izateko. "Joko batean gustatzen zitzaigun zerbait ikusten bagenuen, geureganatu egiten genuen", dio biribil Ricardo Puertok *Fasebonus*-i<sup>32</sup> emandako elkarrizketa batean.

Bideojokoetan aritutako ordu horietan hartutako ideia guztien emaitza da 'Comando Tracer'. "Eragin handia izan zuten gudan une hartan merkatuan zeuden jokoek. Oso gustuko nituen Dominic Robinsonen eta Jonathan Smithen (Erresuma Batua, 1967-2010) lanak, gauza zoragarriak egiten zituzten".

Zentzu horretan, Smithen berak garatutako 'Cobra' (Ocean Software, 1986)<sup>33</sup> bideojokotik edan zuen zuzenean 'Comando Tracer'ek. "Teknikoki britainiar programatzailearen jokoetatik hurbilago dago, zenbait abiaduratako<sup>34</sup> *scroll* plano batzuk eta maskara duten pertsonaiak daudelako". Zeusek etorkizuneko mundu batera eraman zuen 'Cobra'ko ekintza eta Stalloneren ordeztiro egiten zuen espazio-ontzia jarri zuten. "Eskuinera eta ezkerre mugitzen zinen, muturrik ez daukan pantaila batean, biribila delako", azaldu du Raul Lopez grafistak.

"Oso erraza da jokoaren garapena. Fasean barreiatutako bateria-pila batzuk bildu eta zenbait energia-edukiontzia bete behar dira. Hori dena, pantailako etsai guztiak akabatzen dituzun bitartean", laburbildu du. "Fase bakoitzeko dauden lauzpabost edukiontzia betetakoan, beste planeta batera pasatzen zara. Guztira hiru dira --Zorax, Alford eta Grisum--, bakoitzak bere itxura grafiko berezia daukalarik".

Puertok gogoratzen duenez, jokoaren garatzeko zortzi bat hilabetez

---

32. *Fasebonus Podcast*, 119. zk.

33. Sylvester Stallonek protagonizatu zuen 1986ko pelikulan oinarritutako bideojokoa.

34. *Scroll parallax*: pantaila mugimendu mota bat, bi atzealde edo gehiago abiadura banatan mugitzen dira bideojokoari sakontasuneko sentsazioa emateko.

jardun zuten, ez luzeago. Ikuspuntu teknikitik, 'Comando Tracer'ek daukan gauzarik ikusgarriena abiadura banako hiru mailetako *scrolla* da, Spectrum mikroordenagailu mugatuan lortzen oso zaila den efektua. Lopez eta Puerto oso harro daude 'Comando Tracer'ez eta haien ustez, seguruenik, "Zeus Softwarek Spectrumerako egindako jokorik onena" da.

"Hundra' ikasteko jokia izan zen. Zerbait lehen aldiz egiten duzunean, ez da inoiz ateratzen nahi zenuen bezala. Gainera, Raulek egindako lehen grafikoak zeuzkan eta programatzen zuen lehen kodea zen", onartzen du Puertok. 'Comando Tracer' amaitu genuenean, aldiz, "nahi izan genuena egin genuela sentitu genuen".

Garatzeko hilabete haietan, donostiar gazteek Spectrumen memoriari gaitasun osoa atera ahal izan zioten. "Hain landuta zegoen dena ezen azkenean jokoan ez baikeneukan memoriarik eta jokoaren amaiera egiteke geneukan". Irtenbidea: 'jarraituko du' labur bat jartzea, oso ohikoa zena garai hartako espainiar ekoizpenetan, azken kilobyte erabilgarria ere atal teknikorako erabiltzea nahiago baitzuten, istorioaren kaltetan.

"Ez zen inoiz asmorik egon bigarren zatia egiteko. 'Jarraituko du' jarri genuen hala ez genuelako denborarik galduko amaiera egiten. Bestalde, ez geneukan toki gehiagorik besterik jartzeko", erantsi du euskal programatzaileak.

'Comando Tracer' amaituta, donostiarrak Victor Ruizekin harremanetan jarri ziren berriz. "Dinamicekin lan egin genuen eta 'Hundra'ren ondoren harreman ona geneukan". Madrilgo bulegoetara kopia bat bidali ondoren, Ruizek Zeus Softwareren lehen jokoarekin hain emaitza onak eman zizkion marketin estrategia errepikatu zuen. Luis Royoren azala<sup>35</sup> bilatu zuen berriz eta, 'Hundra'ren kasuan bezala, 'Comando Tracer'en hasieran pentsatuta ez zeuden elementuak sartu ziren; alegia, azalaren atzealdean ikusten den planeta erdi suntsitua. Raulek sartu zituen xehetasun horiek jokoaren azken bertsioan berriz ere.

---

35. Luis Royoren azalean oinarritutako karga-pantailak *Microhobby* aldizkariak aurkezpen-pantailarik onenentzat antolatutako lehiaketa irabazi zuen (1988)



Garapenaren amaieran bideojokoaren izena ere aldatu zen. "Hasiera batean guk 'Tracer' izena hautatu genuen, baina Dinamicek esan ziguten oso laburra zela. Buelta bat eman eta 'Comando Tracer' deitu zioten azkenean, Lopezek gogoratzen duenez. Dena dela, hasierako kargako irudia ez zen aldatu, eta han 'Tracer' ageri da.

Jokoa 1988an argitaratu zen, 875 pezetan kaseteko bertsioan eta 1.750 pezetan disketean, Spectrum, Amstrad CPC eta MSX ordenagailuetarako. Lau urte geroago, 'Comando Tracer' Erresuma Batuan eta Italian banatu zuen Summit konpainiak, 3,99 liberan, 'The Last Commando' izenez eta Europan 8 bitak maldan behera betean zeudenean. Oraingoan, joko merkeen banatzaileak jokoaren jatorrizko azala aldatu eta 1989an Zeus Softwareren markarekin argitaratutako Dinamicen beste titulu batena erabiltzea erabaki zuen. 'Bestial Warrior' zuen izena.

Espainiako prentsa espezializatuak<sup>36</sup> 'Comando Tracer' en dohainak azpimarratu zituen -zortzi puntu hamarretik-, baina aldizkari britainiarrak, hala nola *Crash*<sup>37</sup>, *Sinclair User*<sup>38</sup> eta *Your Sinclair*<sup>39</sup>, ez ziren hain onberak izan eta emandako notak 65 ingurukoak izan ziren 100dik. Ricardo eta Raul ez dira gogoratzen zenbat kobratu zuten 'Comando Tracer' harengatik. "Hilero jasotzen genituen eskutitzek zekarten zenbat joko saldu ziren eta zer kanalen bidez banatu ziren".

## **BESTIAL WARRIOR, BITXIKERIA**

'Comando Tracer' ia amaituta eta apalategietan zegoela, Ricardo Puertok alde batera utzi behar izan zuen Zeus Softwaren bideojokoak garatzea bolada batez. 18 urte beteak zituen eta nahitaezko soldaduska egin behar izan zuen. Programatzailearentzat urtebete ezer egin gabe ematea ekarri zuen horrek; zorionez, Loiolara bidali zuten eta, hala, baimena zeukan asteburuetan "ogitarteko ederrak" jan zitzakeen Raul adiskidearekin.

---

36. *Microhobby*, 188. zk., 30 eta 31. or.

37. *Crash*, 96. zk., 64. or.

38. *Sinclair User*, 121. zk., 37. or.

39. *Your Sinclair*, 75. zk., 19. or.

Puertok soldaduskan egindako egonaldia, aldiz, boladarik emankorrenetakoa izan zen Raulentzat, zenbait bideojoko proiektutan parte hartu baitzuen. Haietako lehena 'Bestial Warrior' izan zen. Julio Santosek programatu zuen. Raulen eta Ricardoren laguna zen eta Altzan bizi zen hura ere.

Santosek egindako bigarren jokoa zen. Lehenago 'Central Bank' egin zuen ZX Spectrumerako, baina ez zen inoiz argitara atera, DRO banatzaileak dirua ordaindu arren, argitaratzeko eskubideengatik.

"'Bestial Warrior' oso sinplea zen; 'Hundra' bezala baina apur bat zoroagoa eta *Arcade*agoa". "Julio bere gurasoekin bizi zen eta bere gelan lan egiten zuen; Spectrum bat zeukan han. Gogoratzen naiz haren etxera joaten nintzela, gauza baterako grafikoa egin behar zuela esan hark, eta egin egiten niola nik". Jokoak bi karga dauzka<sup>40</sup> eta haren *gameplay*<sup>41</sup> erreferentzia Palace Softwareren 'The Sacred Armour of Antiriad' titulua zen.

Spectrum, Amstrad CPC eta MSXrako bertsioak Zeusen zigiluarekin iritsi ziren dendetara<sup>42</sup> Dinamic Softwareri esker. Raulek eta Ricardok, dena dela, produktua ia Julio Santosena dela onartzen dute.

Raul Lopezek 'El Capitán Trueno' (Dinamic, 1989) bideojokoaren superproduktzioan ere parte hartu zuen grafista gisa; 1956an Victor Mora Pujadas gidoigileak eta Miguel Ambrosio Zaragoza marrazkigileak sortutako abentura istorioetan oinarrituta zegoen. Gamesoft konpainia arduratu zen bideojokoa garatzeaz eta hamar bat lagunek parte hartu zuten haren faseetan.

Gamesoften bulegoak Javier Bravo Palacio programatzailearen gurasoek Logroñon zeukaten jatetxearen gaineko solairuan zeuden. Jokoa ekoizten ari zirela, halako batean Dinamiceko Victor Ruizi grafista bat eskatu zioten --ekoizpen lanetan ziharduen berak-- eta hark Rauli

---

40. Espainiar softwarearen urrezko aroan modan egon zen bi joko modu egitea, haietako bakoitza kaseteen aldeetako batean.

41. Jokatzeko metodoa edo sistema

42. *MicroHobby*, 189. zk. , 41. or.

aipatu zion. Zalantzarik egin gabe, Zeus Softwareko kidea Errioxako hiriburura joan zen 'El Capitán Trueno' ren bigarren kargako grafikoak prestatzeko. Zenbait astez Bravoren gurasoen etxean lo egin zuen.

Lopezek gogoratzen duenez, bigarren kargaren grafikoak ez ezik, azaleko letrak ere egin zituen. "Atarirekin egin nituen, pixelez pixel ordenagailuan. Behin Dinamicen ginela, argazkilari profesional bati deitu zioten letrei argazkia egiteko. Letrak kalitate handiko telebista edo monitore batean gaininprimatuta zeuden. Haiek moztu eta jatorrizko posterrean sartu zituzten. Luis Royoren irudia zen hura", dio.

Azkenik, Ricardo Puerto soldaduskatik itzuli baino lehen, gipuzkoar grafistak beste lan bat egin zuen. 'Astro Marine Corps' (Dinamic, 1989) bideojokoaren grafikoak prestatzen lan egin zuen, Ignacio Ruizekin eta Javier Cubedorekin batera, Atari STko eta Commodore Amigako bertsioetarako.

## **RISKY WOODS, MUGARRIA KONTSOLETAN**

Laurogeita hamarreko hamarkada iritsi zenean, aisia interaktiboaren merkatua erabateko aldaketan zegoen murgilduta. Europak 8 bitetik 16 biterako jauzi teknologikoa emana zuen. Bideojokoaren kontsolak indartsu sartu ziren negozioan eta mikroordenagailuak alboratzea lortu zuten, pastelaren zati handiena janez. Bitartean, Espainian, bideojokoaren argitaratzaileek eta enpresek, hamar urte lehenago Estatuko merkatuaz jabetu ondoren, iraganari atxikita jarraitzen zuten, horduko arrakasten itzalean bizi nahian, software zaharkitua ekoizten eta saltzen.

Donostian, Ricardo Puerto programatzailea soldaduskan egindako egonalditik itzulia zen. Zeus Softwareren jarduerari berrekiteko garaia zen. Lehen aste haietan, donostiarrek euren lehen kontaktua izan zuten dendetara iritsitako ordenagailu berrietako batekin: Commodore Amiga<sup>43</sup>. "8 biteko ordenagailura ohituta, liluragarria zen hura", diosku Puertok. Ordura arte lan egindako ordenagailu guztien potentzia

---

43. Commodore Amiga Jay Glenn Miner-ek eta Didbit enpresako (Santa Clara, Kalifornia. Estatu Batuak) ingeniari talde txiki batek diseinatu zuten. Haren modeloak 1985 eta 1994 artean saldu ziren.

gainditzen zuen, guztiz. Birritan pentsatu gabe, bere urtebetetzerako erosi zuen Puertok. "Amiga 500<sup>44</sup> bat zen", gogoratzen du.

Pozak txoraturik, Zeus Softwarek 8 bitak alde batera utzi eta ordenagailu pertsonal berri horretarako jokoak egiteari ekin zion. "8 biteko jokoak egiten eskarmentua izan arren eta hari errentagarritasuna askoz luzaroago atera bageniezaiokeen ere, aitzindariak izan nahi izan genuen", diote.

Hala ere, Commodore Amigarako bideojokoak egitea ez zen kontu erraza: 8 bitekin ikasitako guztiak ez zuen deus ere balio. "Jostailu batekin programatzetik zerbait serioagora igarotzea bezala izan zen". "Oso zaila egin zitzaigun eta hasiera; oso latza izan zen", onartu du Puertok. "ZX Spectrumen programazioa erraza zen. Lau gauza zeukan eta oso azkar ikas zenitzakeen, baina Amigan hardwarea zen dena". Makina "guztiz irekia" zen eta "guzti-guztia" programarazten zizun. "Ordenagailuaren erraiak zuzenean ukitzea bezalakoa zen".

Commodore Amigak nola funtzionatzen zuen ezagutzeko zenbait hilabete dokumentazioa irakurtzen eta probak egiten igaro ondoren, Puertok eta Lopezek lanari ekin zioten 'Risky Woods' sortzeko. 'Comando Tracer'en bezala, Amigan joka zitezkeen bideojokoak eta jolas-aretoetako berritasunak eraginik handiena izan ziren berriz bi gazte hauentzat.

Batak zein besteak onartzen dute Capcom-en<sup>45</sup> 'Ghouls 'n Ghosts' (1988) jolas-makinaren eragina, fase bakoitzaren hasieran agertzen den miniaturako maparen ideia ere hartu zioten. Ikusizko alderdiari dagokionez, grafistak Mark John Coleman eta Dan Malone britainiarren lanak hartu zituen erreferentzia. The Bitmap Brothers<sup>46</sup> konpainiakoak ziren haiek. Jokoak dituen pertsonaiak sortzeko, ordea, Lopezek hainbat estilotako lanen eragina izan zuen, hala nola Dragoi Bola japoniar

---

44. "Gama baxu"kotzat jo zen lehen Amiga ordenagailua.

45. Bideojokoak garatzen eta banatzen dituen japoniar enpresa, 1979an sortua.

46. The Bitmap Brothers bideojokoak garatzen dituen Erresuma Batuko enpresa da, 1987an sortua.

animazio-sailarena eta Richard Corben<sup>47</sup> estatubatuar istoriogilearen marrazkiena.

‘Risky Woods’en garapenak “bi urte baino zertxobait gehiago” iraun zuen, denbora nahikoa Ricardo Puertok ezkerreko poltsikotik mirari teknikoren bat edo beste atera zezan. “Commodore Amigako joko gehienek *scroll* pantaila bakarra zeukaten, baina ‘Risky Woods’ek, aldiz, bi zeuzkan. Abiadura banatan mugitzen diren bi atzealdeak ideia lehenago ere ikusia zuen Psygnosis-en ‘Shadow of the Beast’en (1989) eta programatzaileak, efektuagatik harrিতuta, ‘Risky Woods’era eraman nahi izan zuen. “Teknikoki, nahiko berria zen”, onartu du.

Jokoa garatzeko azken faseetan eta PC DOSeko bertsioetarako, hiru grafista gehiago batu zitzaizkion taldeari –Maite R. Otxotorena, Juan Manuel Ripalda, Andreito Lobero--; haiek marraztu zituzten atzealdeak eskuz, ordenagailu haiek zeuzkaten VGA txartelen potentzia baliatuz. Ondoren, Lopezek marrazkiak eskaneatu eta pantaila-atzealde gisa sartzen zituen jokoaren maila jakin batzuetan.

Musikaz Jose Antonio Martín arduratu zen; Raul Lopezek ezagutu zuen, Pablo Ariza programatzailearen bitartez. Madrilgo auzo berean bizi ziren biak eta elkarrekin lan egin zuten ‘Astro Marine Corps’en. “Izugarri gustatu zitzaigun joko horretarako egin zuen musika eta horregatik eskatu genion ‘Risky Woods’erako egin ziezagula. Prezioa adostu genuen eta elkarrekin lan egiten hasi ginen”, diote Zeusetik.

‘Risky Woods’en garapena amaitu aurreko faseetako batean, donostiarrak jokia argitaratzeko argitaratzaile posibleak haztatzen hasi ziren. “Garai hartan, Dinamic gainbehera zihoan<sup>48</sup> eta beste konpainia batzuk bilatzea erabaki genuen. Geneukan harremanarekin pozik egon

---

47. Rohanek, Risky Woodseko protagonistak, Akira Toritamak sortutako Dragoi Bola animazio-saileko ikusizko elementu batzuk hartu zituen maileguan. Jokoa sartzen den arma-dendako saltzailea, ordea, Den-en dago oinarrituta, Corbenen pertsonaiarik ospetsuenetako batean, hain zuzen.

48. “1991n eta 1992an ruiztarrek lau joku baino ez zuten atera, kantitate izugarri txikia 1980ko hamarkadaren amaieran izan zuten ekoizpen ia industrialak kontuan hartzen badugu”. (*Ocho quilates. Una historia de la Edad de Oro del software español II*. Jaime Esteve. 353. or.)

arren, ez genuen lotuta egon nahi. Beraz, beste eskaintza batzuen bila hasi ginen”. Hala ere, kopia bat igorri zioten Dinamici, “zertan ari ginen jakin zezaten”.

Espainiar banatzailearen bulegoetan jokia ikusi zuten. ‘Risky Woods’-ek potentzial handia zuen, eta Dinamiceko zuzendari eta bazkide izandako Pablo Ruiz “beraiek atera behar” zutela tematu zen. Espainiako gainerako banatzaileak bezala, Ruiz anaiei konpainia 8 bitetan geratu zen, ez atzera ez aurrera, “eta guk oso garai onean hartu genuen Amiga. Gainera, kalitateko jokia geneukan unerik onenean --diote Zeuseko kideek--, Espainian inork ez zeukalako antzeko ezer”.

Gipuzkoarrek Dinamicen alde egiteko gako madrildarrek Electronic Arts-ekin (EA)<sup>49</sup> zuten harremana zen. Estatu Batuetako konpainiak haien jokoetako bat banatu zuen European lehenago ere: ‘Navy Moves’. Victor Ruizek berak IGN Retropodcast-entzat<sup>50</sup> emandako elkarrizketa batean dioenez, EAK ez zeukan bere sare komertziala kontinente zaharrean eta ez zuen egin nahi Ipar Amerikako bere jokoeekin eta, beraz, “zenbait konpainiaren europar joko batzuk hautatu zituzten eurek banatzeko”.

Zenbait aste geroago, Ricardok eta Raulek Pablo Ruizen deia jaso zuten. Zirudienez, Mark Lewis Electronic Arts-eko zuzendari nagusia eta David Gardner zuzendari komertziala Estatuan zeuden, oporretan, Espainian EAren arduradun nagusia izandako Javier Bustok gonbidatuta. Esan zenez, Donostia pare bat egunez bisita zezaten konbentzitu zituen. Denbora nahikoa haiekin bilera bat egiteko. “Interes handia dugu daukazuena ikus dezaten”, esan zion, autoa Gipuzkoako hiribururantz bideratu ahala.

Bilera Londres Hotelean egin zen. Bi euskaldunek Amiga ordenagailua, monitorea eta agintea eraman zituzten. EAKo zuzendariak ostatu hartu zuten hoteleko gelan dena muntatu eta jolasten hasi ziren, Pablo Ruizek ingelesera itzultzen zuen bitartean. Bilerak ordubete inguru iraun zuen.

---

49. Bideojokoak garatzen eta banatzen dituen estatubatuar enpresa, Trip Hawkins-ek 1982an sortua.

50. <http://es.ign.com/podcast/4236/ign-retropodcast-programa-2-1-2013-victor-ruiz-dinamic-retro>

“Oso urduri geunden gehienetan ez zeneukalako aukerarik zure jokoa holako jendeari erakusteko”, onartu dute Zeuseko kideek.

Bilera egin eta pare bat hilabetera, gutxi gorabehera, Dinamicek eta Electronic Artsek kontratua sinatu zuten Londreseko bulegoetan<sup>51</sup>. Haren bidez, ‘Risky Woods’, ordenagailurako bertsioetan eta Sega Mega Drive<sup>52</sup> kontsolarako bihurtetan, European banatzeko eskubideak eskuratu zituzten.

Laurogeita hamarretako lehen urte haietan, Mega Drive europar merkatuan indartsuen sartu ziren makinetakoa bat zen. EAK ‘Risky Woods’ekin merkatu horretan sartu ahal izateko aukera ikusi zuen, eta halaxe izan zen; bideojoko-kontsola batean historian argitaratutako lehen espainiar bideojokoa bihurtu zen hala.

“Guk ez genuen eragin handirik izan”, onartu du Ricardo Puertok. “Dinamicen eta EAren arteko hitzarmena jokoa amaitu aurretik zegoen sinatuta”. “Victor Ruizi bidali genizkion kopiak guk, beti bezala, eta berak helarazi zizkion zegokion pertsonari. Guk ez genuen zerikusirik izan Mega Driveren garapenarekin”, kexatzen da.

## **EA-REN ESKUETAN**

Dinamicek Electronic Artsekin hitzarmena sinatu ondoren, ‘Risky Woods’-en kopia bat EAK Sloughen zeukan barneko garapen-taldeari iritsi zitzaion. Slough Berkshire konderriko hiri bat da, Ingalaterran. Talde hura Steve Wetherillek zuzentzen zuen; 8 biten aroan ospetsua izan zen

---

51. "Hitzarmen aparta izan zen. Seguruenik espainiar jokorik salduenetako bat da, EArekin atera genuen eta haien beren marka balitz bezala atera zuten. Ez zen izan Dinamic EAK banatua, Electronic Arts EAK banatua baizik", adierazi du Dinamiceko Pablo Ruizek '*Ocho quilates. Una historia de la Edad de oro del software español (II)*' lanean. (356. or. Jaime Esteve, 2012)

52. SEGAK ekoiztitako mahaiko bideokontsola, merkatura 1988an atera zena. Europako merkatura 1990eko azaroaren 30ean iritsi zen.

Erresuma Batuan, eta Odun Computer Graphics<sup>53</sup> konpaniaren garapen askotan parte hartu zuen.

“Sega Mega Driverako bertsioa sortzeko erabakia EAtik hartu zen. 1992ko urtarrilean Erresuma Batuko egoitzan lan egiten hasi nintzen. Amigako jokoa ez nuen Mega Drivera zuzenean bihurtu nahi, ordea; aitzitik, kontsolari egokitzeko ezaugarri gehigarriak izan behar zituen. Handik sortu zen jokoaren bertsio hobetua sortzeko ideia”.

Wetherill 1992ko otsailaren hasieran hasi zen bertsio horretan lan egiten. Gogoratzen duenez, ‘Risky Woods’ en Amigarako bertsioa “oso koloretsua, azkarra eta dibertigarria zen, eta oso mugimendu leuna zeukan”. “Jokatzeke modua nahiko sinplea zen, baina desafiagarria”, dio. Programazioaren ikuspuntutik, Wetherill harrিতuta geratu zen Amiga ordenagailuarekin geruza aniztun *scroll parallaxa*<sup>54</sup> egitea nola lortu nuen ikusita.

Mega Drivera bihurtzeko lanak hartu zituen sei hilabetetan, hiru lagunek lan egin zuten ‘Risky Woods’ egokitzen. Wetherill bera arduratu zen programazioaz, eta Jimmy Savage freelance artista arte gehigarriaz. “‘Risky Woods’ en Mega Driverako bertsioke musika eta soinu efektuak Jason Whitelyk sortu zituen; EAko barneko langilea zen bera”.

Wetherillen taldeak jokoaren Amigako bertsioarekin lan egin zuen une oro. “Iturri-kode osoa “oso ondo idatzita” pasa ziguten 68000 mihiztadura lengoian<sup>55</sup>, baita artea eta audio fitxategiak ere”. “Alderdirik barregarrienetako bat da kode osoa gazteleraz zegoela, noski. Beraz, liburu-denda batera joan eta Gaztelania-Ingelesa hiztegia erosi nuen”. Hala ere, onartzen duenez, denbora asko behar izan zen oharrak eta programazio etiketak itzultzeko.

---

53. Zenbait urte geroago, Steve Wetherill Westwood Studioseko presidenteorde bihurtu zen (1994–2002), eta Uztek Gameseko garatzaile nagusia (2002–2008). Han Igor Ruiz ‘Konstantin’ euskal programatzailearekin batera egon zen.

54. Pantaila-mugimendu mota konplexua, atzealdeko eszenatoki bakarra mugitu beharrean, bi plano edo gehiago mugitzen dira irudiaren nolabaiteko sakontasun sentipena sortzeko.

55. Motorola 68000 mikrotxipari jarraibideak emateko berariazko programazio-mintzaira.



Eako programatzailearentzat erronkarik zailenetako bat izan zen Ricardo Puertok Amigako bertsioan *scroll parallaxa* lortzeko erabilitako programazio trikimailuek nola funtzionatzen zuten konturatzea, Segaren kontsolak berak zeuzkan muga batzuek gain.

“Mega Driven, ez zegoen behar beste tokirik bideoo memorian *sprite* guztiak aldi berean egokitzeko, batez ere kontsolaren egokitzapenerako batzuk gehiago erantsi ondoren. Beraz, *sprite* dinamikoko sistema bat idatzi behar izan nuen. Halakoak Mega Driveren VRAMean<sup>56</sup> kargatzen eta deskargatzen dira. Teknikoki, erronka bat zen. VRAMean tokirik gabe geratuz gero, sistemak *sprite* batzuk sakrifkatzen zituen, beste batzuk, adibidez etsaienak, zuzen ager zitezen”.

“Beraz, *sprite* horiek hausteko tresna bat idatzi nuen --jarraitu du Wetherillek-- eta ondoren EAren barneko tresnak erabili nituen *sprite* guztiak zenbait tamaina konbinaziotan muntatzeko berriz, Mega Driveren hardwarera egokitu eta espazioa optimizatzeko hala”.

Mega Driveko ‘Risky Woods’ Zeus Softwareko euskaldunek sortutako jatorrizkoaren ia berdina bazen ere, zenbait aldaketa izan zituen jokoak. Electronic Artseko barneko garapen taldearen zuzendariak azaldu duenez, konpainiak ez zuen Amigako jokoak Mega Driverera zuzenean bihurtu nahi. “Jatorrizko ‘Risky Woods’ek ez zeukan ezer txarrik”, onartu du. Mega Driverako garatutako EAren jokoak, ordea, Estatu Batuetako egoitza nagusiak onartu behar zituen, eta aldaketa batzuk eskatzen zituen horrek.

“Risky Woods’ek Amigako jatorrizko bertsioaren aldean, jokagarritasunerako zekartzan aldaketei buruzko erabakiak EAko pertsona batzuek hartu zituzten; haien artean zegoen Kevin Shrapnell<sup>57</sup>

---

56. VRAM (Video Random Access Memory – Ausazko sarbideko memoria grafikoa) RAM memoria mota bat da; kontrolatzaile grafikoak darabil memoria hori sistemaren PUZek bidalitako ikusizko informazio guztia maneiatu ahal izateko.

57. Electronic Artseko egungo garapen seniorreko zuzendaria eta jokoaren produktorea, besteak beste, ‘Road Rash’ (1992) eta ‘James Pond 3: Operation Starfish’ena (1993) .

konpainiako produktorea. 'Simon'<sup>58</sup> jokoaren sistema simulatzen duten puzzle ataletarako gregoriar kantuak sartu nahi zituen, baina Ipar Amerikako konpainiaren soinu-motorraren bidez ezin izan zen gauzatu".

Protagonista ere birdiseinatu zen. Amigako bertsioan baserritar edo nekazari baten antza zeukan bitartean, kontsolako bertsioan kapa eta makulua erantsi zitzaizkion eta azti moduko bat bihurtu zen<sup>59</sup>.

"Janzkera eta armadurak aldatzeko inspirazioa 'Ghosts'n Goblins' jokitik etorri zen, nire gogokoenetako bat baitzen. Ondoren, 'Simon' estiloko joko sistema erantsi genion --musika nota segida bat errepikatu behar zen bertan-- pantalei bira gehigarri txiki bat emateko", diosku britainiar programatzaileak.

Azkenik, Mega Driveko bertsioaren ikusizko akaberak kolore motelagoak zeuzkan. "Risky Woods'en Amigako bertsioko zeruaren grafikoak koloretsuagoak dira, kasu honetan, kontsola 16 koloretara mugatuta zegoelako. Segako bertsioko atzealdeak, ordea, ez dira hain errepikakorrak --zehaztu du--, Amigakoan *sprite*ak hardwarez errepikatuz sortu baitziren".

Steve Wetherill programatzaileak ondo gogoratzen du 'Risky Woods'i Segaren 16 biteko kontsolarako egindako bihurketa hori. "Programatu nuen Mega Driveko lehen jokoa izan zen, lauzpabost urtez Amigan eta Atari STn lan egiten ibili ondoren. Beraz, lana oso atsegina izan zen eta egin ahala ikasi ahal izan nuen Mega Drive nola zebilen".

1991ko amaiera aldera *Micromaniak* eta beste aldizkari espezializatu batzuek 'Risky Woods'en Amigarako bertsioaren analisia<sup>60</sup> argitaratu

---

58. Ralph Baer-ek 1978an sortutako musika-joko elektronikoa, oso arrakastatsua 80etan.

59. <http://gamikia.com/2012/03/15/risky-woods-un-espanol-en-la-corte-de-sonic-y-mario/>

60. "Risky Woods espainiar softwareak luzaroan eman digun onena da. *Arcade* horrek imajina ditzakezuen ezaugarriarik onen guztiak dauzka: azkarra, atxikigarria, originala, ondo egina... eta ezaugarri interesgarri pilo bat gehiago, hala nola soinu-banda txundigarria; horiek guztiak batuta, programa zoragarria da." (*Micromania*, 43. zk. 25. or.)

arren, 1992ko erdi aldera arte jokoak ez zen dendetan agertu. Dinamic arduratu zen jokoak espainiar merkaturuan salgai jartzeaz, Atari ST-rako, Amigarako eta PC DOS-erako bertsioetan, 3.990 pezetan (23,98 euro). Electronic Artsek, bestalde, munduko gainerako tokietan banatu zituen ordenagailuetarako eta Mega Driver-erako bertsioak, are Japonian ere, han 'Jashin Draxos' izenez ezagutu zelarik.

Bideojoko kontsola baterako editatu zen lehen bideojoko espainarra izateaz gain, 'Risky Woods'-ek beste ohore zalantzarri bat dauka: Dinamic Softwarek porrot egin eta Madrilgo Dorreetako bulegoak itxi aurretik argitaratutako azken bideojokoa izan zen.

## BIOMECHANICAL TOY

'Risky Woods' amaitu eta Dinamic Software itxi ondoren, donostiarrek jakin zuten Bartzelonan bazela jolas-makinak egiten zituen enpresa bat. 1987an 'Hundra'-rekin hasi zirenetik, beti izan zuten gogoan jolas-aretoetan hainbeste ordu kentzen zizkieten bideojoko haiek egiteko. "Jolas-makinetarako jokoak egin nahi izan genituen beti, bideojokoaren 1 Formula bezalakoa zelako", dio Puertok.

"Gaelco<sup>61</sup> kontaktatu genuen; izan ere, esan zigutenez, plaka<sup>62</sup> bat zeukaten eta horretarako jokoak garatzen ari ziren. Hitzordua ezarri eta kontu ekonomikoari eta teknikoari buruz hitz egin genuen haiekin nola lan egin jakiteko". Bazegoen beste akuilugarri bat ere, Gaelcoren plakak Amiga batek baino ahalmen handiagoa zeukan, eta oso erakargarria zen hori programatzailearentzat, erronka berrien bilaketan beti. "Bideragarria zela ikusi eta hurrengo jokoak Gaelcorentzat egitea erabaki genuen".

Lehen bileran, ordea, Bartzelonako enpresak ez zuen inolako konpromisorik hartu. Kontratuko baldintzek antz handia zeukaten Zeus

---

61. Gaelcoren hastapenak 1985ekoak dira. Tecfriko hiru langilek, Xavier Valerok, Josep Quinglesek eta Luis Jonamak, Tecfri uztea eta euren konpainia sortzea erabaki zuten, Crazy Rally bideojokoa garatu ondoren. (<http://vicbengames.blogspot.com.es/2011/07/gaelco-recreativas-espanolas.html>)

62. Jokoa exekutatzeko ahalbidetzen duen jolas-makinaren garuna, zirkuitu-plaka formakoa.

Softwarek Dinamicekin lehen izandakoekin, "royaltyen portzentaje bat zekarren kontratuak. Saldutako kasete kopia bakoitzagatik izan beharrean, ordea, oraingoan saldutako plaka<sup>63</sup> bakoitzagatik zen".

Lehenengo bileraren ondoren, Puerto eta Lopez Bartzelonara itzuli ziren autoz garatze-sistema osoa kargatzeko. Funtsean, txipekin inprimatutako plaka bat zen, kableekin joko-palankara konektatua, eta monitore bat. Hori dena zurezko kutxetan sartuta.

'Biomechanical Toy' ren ideia Rauli otu zitzaion, "txundituta zegoen Terminator 2rekin". "Joko baterako zirriborroak zeuzkan eginda, Biomechanical God deitu zion. Baina nola garatu behar zen eta zer eduki behar zuen eztabaidatzen hasi ginenean, konplexuegia zela ikusi genuen eta, beraz, izena aldatu eta 'Biomechanical Toy' deitzea erabaki genuen, jostailuen mundura eramanda. Askatasun handiagoa ematen zien horrek grafistei, eta marrazki bizidunen antzeko lana egiteko aukera".

Raul Lopezek gogoratzen duenez, garai hartan "jokoetan istorioa interesatzen hasi zitzaidan. Istorioari garrantzia eman nahi nion, eta Luis Jonamak --Gaelcoko bazkideetako bat--, aldiz, ziotan jendeak bost ogerlekoak botatzen zituela istorioaz arduratu gabe". "Ahaztu istorioak, ez dute funtzionatzen", errepikatzen zion. "Arrazoia zeukan benetan, baina jokoari zentzua zeukan istorioa bilatzen tematuta nengoen".

Edonola izanda ere, jokalaria Inguz maneiatzen du, "pistolatzarra eta betaurreko ilunak" dauzkan ekintzako panpina, eta Scrubby geldiarazi behar du, pendulu bat ostu eta, haren botere magikoei esker, gainerako jostailuak kontrola baititzake. Ekintza guztia etxe baten barruan gertatzen da, Disneyren 'Toy Story' pelikularen antzera. Izan ere, eszenatokiak diseinatzeko etxebizitzetan ohikoak diren elementuak erabili ziren, hala nola komuneko horma-argiak, entxufeen forma, eta are Ricardo Puertoren umetako argazki digitalizatu bat ere.

Jokatzeko moduari dagokionez, 'Biomechanical Toy' k 'Midnight Wanderers: quest for the chariot' izenekotik edan zuen. Capcomen

---

63. Plaka PCra konekta zitekeen, kable baten bidez, eta handik jokia programatu eta, egindakoan, iraul zitekeen.

‘Three Wonderers’en (1991) sartutako bideojokoa zen hura. “Txundituta geunden joko horrekin eta gure jokoko grafikoetako asko jolas-makina horretan daude oinarrituta”.

‘Comando Tracer’en ondoren gertatu bezala, derrigorrezko soldaduskak 13 hilabetez banandu zituen donostiarrak berriz. Oraingoan, Lopezen txanda izan zen. Grafista, ordea, ez zegoen prest soldaduskan urtebete geldirik emateko eta, birritan pentsatu gabe, bere Amiga ordenagailua hartu eta Jakako (Huesca) koartelera eraman zuen. Han hasi zen gerora ‘Biomechanical Toy’ko protagonista izango zenaren lehen zirriborroak egiten.

Bitartean, Ricardo Puertok lanari ekin zion, Gaelcoren plakarekin “lardaskatzen” eta egin beharreko jokoa programatzeko behar ziren aplikazioak eta tresnak garatzen. Puertok berak onartzen duenez, Amigatik jolas-plakarako aldaketa “ez zen izan” 8 bitetik 16rako jauzia “bezain muturrekoa”. “Agindu-sorta handiagoa izan arren, baliabide gehiago zeneukan”. Gainera, plakaren mikroprozesagailua --bihotza-- Amigaren berbera zen, Motorola 68000 bat.

Arkitektura teknikoari dagokionez, jolas-makinak hardware hutsa ziren, ‘Risky Woods’ egiteko erabilitako ordenagailuaren oso antzekoa, baina abantaila bat zeukan “bideojokoak sortzeari guztiz begira zegoen eginda”. “Ordenagailu bat hartu eta bideojokoekin zerikusirik ez daukan guztia kentzea bezalakoa zen”.

Programazio guztia PC batean egin zen, interpretatzailearena egiten zuen “mihizatzaile gurutzatu moduko” batekin konektatuta Gaelcoren plakara. Hala, donostiarrak ordenagailuan programazio-mintzaira batean lan egin eta edukia plakara zuzenean iraul zezakeen, eta mihizatzaile gurutzatuak interpretatu eta plakari aginduak ulertarazten zizkion. “Horri esker, azkarragoak ziren prozesu guztiak”.

‘Biomechanical Toy’ garatzeko, Zeus Softwarek handitu eta zazpi langileko taldea bihurtzea erabaki zuen. ‘Risky Woods’ PC DOSerako bihurtzeko batu ziren hiru grafistei, beste bi programatzaile batu zitzaizkien, Juan Maria Gorrotxategi eta Asier Zubilaga. Hiru gelako etxebizitza alokatu eta bideojokoen estudio bihurtu zuten. “Geletako

batean grafistak zeuden eta beste batean programatzaileak". Libre zegoen hirugarren gela Rafael Arroyori<sup>64</sup> alokatu zioten, taldeko laguna zen bera.

Donostiarrei "denbora piloa" hartu zien joko berria ekoiztea, bizpahiru urte. "Alde batetik, jokia 'Risky Woods' baino askoz konplexuagoa zen; izan ere, lau norabidetako *scrolla* zeukan eta, beraz, mapak askoz konplexuagoak ziren. Bestalde, programatzeko tresnak eta programak askoz korapilatsuagoak ziren, baita grafiko-kopurua ere", diote.

Alde teknikoena alde batera utzita, jokagarritasuna ere aritu ziren hobetzen. Ordura arte, Zeus Softwareko jendeak ordenagailuetarako jokoak egin zituen eta jokatzeko moduak ez zuen balio jolas-makinatarako. Programatzaileak gogoratzen duenez, solasaldiak zituen Luis Jonamarekin; "jokoaren kontzeptua aldatu behar genuela errepikatzen zuen", jokalaria 25 pezetako ahalik eta txanpon gehien xahutzea lortzeko.

Horretarako, Gaelcokoek zenbait trikimailu irakatsi ziguten. "Gauza errazak, hala nola zailtasuna orekatzea. Ikusten ez diren erabakiak, baina jokatzearan zerbait dagoela konturatzen zara". Hala ere, 'Biomechanical Toy'k ordenagailu jokoen elementu batzuk jaso zituen. "Nahiko luzea da eta fase piloa dauka" orduko beste jolas-makina batzuen aldean.

Zeus Softwarek 1995ean eman zuen jokia amaitutzat, 'Risky Woods'etik hiru urte igarota. Ordurako, jolas-makinen merkatua 3D jokoetarako trantsizio betean zegoen. "Gaelcoko jendeak nahiko portaera okerra izan zuen", Ricardo Puertoren iritziz. "Beti pentsatu dugu ez zutela ez denbora ez baliabide nahikorik erabili jokia saltzeko. Gehiegi luzatu ginela eta 'Biomechanical Toy' bezalako 2Dko jokoak modaz kanpo zeudela esanez zuritu zuten beren burua. Ez genuen batere gustura amaitu".

Hala ere, donostiarrak prest agertu ziren konpainia katalanarekin 3Dko jokoak egiteko, jakin bazekitelako halako jokoak egitea ahalbidetzen zien plaka berria garatu zutela. Gaelcon, ordea, partekatzeke uzkur agertu ziren.

---

64. 'Biomechanical Toy' jolas-makinako esker onen artean ageri da

## LAST KM

‘Biomechanical Toy’ bete-betea garatzen ari ginela, Gaelcotik “Luis Jonamak deitu zigun eta oso azkar, hilabetea, egin eta diru asko irabazteko moduko proiektua proposatu zigun”, kontatu du Puertok. Bartzelonako Las Ramblasen kokatutako jolas-areto batentzat neurritik egindako makina bat zen. ‘Last KM’ zen.

“Bi bizikleta estatikori konektatutako makina bat egin nahi zuen, aurrean monitorea zeukana. Hiru edo lau mailako jokoa zen. Jokalariak, aldapa batera iritsi edo azkarrago joan nahi bazuen, gogorrago eragin behar zien pedalei”. Horrez gain, tropela eta jokolariari aurre hartzen zioten txirringulak erantsi zituzten “sumindu eta azkarrago joan zedin”.

2Dn eginda, Raul Lopezek argazki kamera hartu eta Donostia osotik ibili zen, hormen, tunelen, errepideen, belarren... irudiak hartzen. Dena eskaneatu eta pixelez pixel eraman zuten jokora eszenatokiak sortzeko. Programazioari dagokionez, Puertoren esanetan, ‘Biomechanical Toy’ egiteko garatutako tresnak baliatu zituzten ‘Last KM’ri aplikatzeko. Horri esker, Zeusen lanak ez zituen gainditu hitzartutako lau asteak.

‘Last KM’ren arazoa muntatzeko unean iritsi zen. Jokoa eginda zegoela, Ricardo Puertok Bartzelonara iritsi zen makina Las Ramblasko jolas-aretoan instalatzeko. Han, Gaelcoko taldeak beste makina zahar batzuetako plaka pare bat berrerabilarazi zion, baina ez zeuden jokorako prestatuta eta programatzaileak ez zuen haiekin lan egin. “Kablea erantsi zioten elkarri konektatzeko eta protokolo izugarri trakets baten bidez komunika zitezen”. Horren ondorioz, informazioaren truke abiadura “izugarri motela zen”. “Bit bat segundoko!”.

Bi astez, donostiar programatzaileak garuna estutu zuen funtzionatzea lortzeko, nolabaiteko zortiaz. “Bizikletak sinkronizatuta joan beharrean, Donostian garatu genuen bezala, aurrenez zihuan. Bizikleta bat azeleratzen ari bazen, datuak besteari igorri eta hark aurreikusten zuen azelerazio horrekin txirringulak posizio jakin batean egongo zela”. “Hori, igorritako datuak hondatuta egon ezean --zehaztu du--, hori ere oso ohikoa baitzen”.

## ENERGY, AMAIERAKO PUNTUA

Gaelcorekin izandako harremanagatik zapuztuta eta haien plaka 3Dko jokoak egiteko erabiltzeko ukoaren aurrean, Zeus Softwarek harreman hura amaitutzat jo eta euren kabuz saiatzea erabaki zuten, PCrako 3D bideo-txartelen *booma*<sup>65</sup> baliatuz. "Gogoratzen naiz lehen bideo-txartel azeleragarriak zabor hutsa zirela. Txantxetan, txartel *desazeleragarriak* esaten genien guk, egiatan eskuz baino motelago marrazten zituztelako poligonoak", dio Ricardo Puertok.

Donostiarren estudioa, ordea, 'Proyecto Energy' klabe izena zeukan jokoak garatzen hasi zen. Ordenagailuetarako 3Dko abentura-jokoa zen, "Erdi Aroko ukituarekin". Lehen zertzeladak emanda, Ricardo eta Raul Dinamic Multimediako<sup>66</sup> jendearekin bildu ziren; une hartan, "diru gehiago zeukaten". Sinatu zuten akordio ekonomikoaren arabera, Dinamic arduratuko zen jokoaren ekoizpenaz eta donostiarrei diru kopuru bat ziurtatuko zien hilerok.

Zeus Softwareren proiektu nagusia zirudiena denborarekin urtzen joan zen. Teknologia aldaketa 'Energy'ren premietara egokitzeko esfortzua "8 bitetik 16ra igarotzea baino erradikalagoa" izan zen, Puertok azpimarratu duenez. "Dena hutsetik hasi behar izan genuen. Grafikoak, jokagarritasuna, tresnak... dena! Matematika eta fisika asko ikasteaz gain".

Raul Lopez grafistak gogoratzen duenez, '3D Studio'rekin lan egiten hasi zen, zerbait erabat berria berarentzat. "Oso motel gindoazen eta asko luzatzen ginen gauzak egiteko". Zenbait hilabetez tresna berriei borrokan ibili ondoren, Lopezek amore ematea erabaki zuen. "Etsita nengoen. Bideojokoekin zerikusirik ez zuten gauzak egin nahi nituen. Ezer argirik ikusten ez nuenez gero, alde egin nuen, bi

---

65. Bideo-txartelen bilakaerak bira handia eman zuen 1995ean, lehen 2D/3D txartelak agertu zirenean. Txartel haiek SVGA estandarra betetzen zuten, baina 3D funtzioak gehituta. (Wikipedia)

66. Dinamic Softwareren porrotaren ondoren, Hobby Press argitaletxeko presidente izandako José Ignacio Gómez-Centuriónek enpresa berria sortu zuen, Dinamic Multimedia izenekoa, bertan % 70eko partaidetza zeukalarik. Gainerako %30 Pablo Ruiz, Víctor Ruiz eta Nacho Ruiz anaien eta Carlos Abril programatzailearen eskuetan geratu zen.



arloak bateratzeko aukerarik ematen ez zidan lan bat atera zitzaidala baliatuta”.

Lopez proiektutik kanpo egonda, Maite Rodriguez Ochotorena grafistak heldu zion ‘Energy’ren atal grafikoaren lehenari, Ricardok jokoaren pisu guztia zeramalarik. Hala ere, “bolada bat eman genuen garatzen eta oso gauza onak egin genituen”, onartu du. Zeus Softwareko taldeak erakustaldi bat ere prestatu zuen eta Dinamic Multimediako jendeak Electronic Entertainment Expora (E3) eraman zuen, finantzaketa eta eroslea lortzeko. Bideojoko-industriaren biltzar garrantzitsuenetako bat da E3, eta Estatu Batuetan egiten da.

1999ko hastapenetan, ‘Energy’ proiektua ezerezean geratu zen. Dinamic Multimediaren barruko gatazkek Zeus Software ere zipriztindu zuten eta finantza-iturria guztiz itxi zen. Ezagutu ez diren arrazoiengatik, Jose Ignacio Gomez-Centurion Dinamic Multimediako zuzendari nagusiak, Pablo Ruiz kaleratzea erabaki zuen. Horrek “barne-matxinada” piztu zuen konpainiako bazkideen artean. “Egun batetik bestera, Ruiz anaiak beren bulegoetan ezin sartu geratu ziren”, azaldu du Puertok.

Aje betean, Gomez-Centurionek Zeus Softwareko jendeari deitu zion. Hiru urtez zertan jardun zuten eta hainbeste diru zertan gastatu zuten azaltzea nahi zuen<sup>67</sup>. Puerto Madrila abiatu zen eta han azken pezeta ere justifikatu zuen, eta Ruiz anaiek, haiekin aldi behin bildu eta jokoaren fase guztiak erakutsi ondoren, ‘Energy’rako aurrekontuan sartu baino diru gehiago ematea onartu zutela frogatu zuen. “Gomez-Centurionek Ruizarren alde geundela pentsatu bide zuen eta lokaztu egin zen dena. Bere abokatuen bitartez Dinamicek emandako dirua eskatu zigun, baina azkenean legez konpondu ahal izan genuen”.

Proiektu erraldoia erdizka zutela eta dirurik gabe, Zeus Softwarek ateak ixtea erabaki zuen 1999an.

Pasadizo gisa, esan behar da aldizkari batzuek, hala nola *Micromaníak*, ‘Energy’ri buruzko erreportaje zabala argitaratu zutela urte horretako

---

67. Ricardo Puertok onartu duenez, Dinamic Multimediak hasieran aurrekontuan sartu baino diru gehiago gastatu zuten.

amaiera aldera, azaroan<sup>68</sup>, enpresa guztiz itxita zegoela. "Tamaina eskergako abentura bat", Dinamic Multimediak atera behar zituen produktuei buruzko gehigarri bereziaren barruko orrietan iragarri zenez.

Istoria Transiteko fantasiako munduan gertatzen zen. Yoellen samalda gaiztoek hango biztanleak bahitu eta giltzaperatu zituen. Yiria izeneko neskatila bat, ordea, bere herria matxinatu eta askatzeko giltza izango da. 3D ingurune "guztiz interaktiboa" zeukan, eta jokoaren proposamena "mundu irekia, oso eremu zehatzek mugatutako barruko eszenatokien ohiko kontzeptutik urrundua" zen.

Erreportajeak, Maite Rodriguezi eta Ricardo Puertori egindako elkarrizketa zekarren. Han, Yiria protagonistaren eta 'Tomb Raider' bideojokoko Lara Croften arteko antzekotasunei buruz galdetu zieten. "Istoria oso bestelakoa da, kontzeptua desberdina da, eta oso sinesgarria ematen ez badu ere, 'Energy'n lan egiten hasi ginenean, 'Tomb Raider' oso jende gutxik ezagutzen zuen proiektu bat baino ez zen", erantzun zuen Rodriguezek.

Argitalpenean azpimarratu zutenez, bestalde, teknologikoki "jokoak ez du Espainian egina ematen". "3D txartel azeleragarrietarako bakarrik pentsatutako jokia da eta, beraz, kalitate bisualean, grafikoan eta zeharka, jokagarritasunean, 'Energy' onenen zerrendan egongo da, egiatan". Puertok berak dioenez, jokia hasieratik pentsatu zen "zerbait berezia" izateko. "Titulu ikusgarria, nahi baduzu, ohiko gauzetatik aterako zena. Horregatik, garrantzitsua zen produktu teknologikoki aurreratu gisa pentsatzea".

Erreportajearen amaieran adierazi zutenez, "'Energy'ri zenbait hilabete falta zaizkio oraindik proiektua guztiz amaitua izateko[...] eta ikusgarria izango da". Ezta hurrik eman ere. Arestian aipatu bezala, ez zen inoiz argitara atera, eta Zeus Software euskal estudioaren amaierako puntua bihurtu zen.

---


68. *Micromanía*. 3. aroa. 58. zenbakia. Dinamic Multimedia, gehigarri berezia (20-25. or.).

Egun, Raul Lopezek Donostian lan egiten du, zinema eta bideoko muntatzaile eta postprodukzioko lanetan, batez ere film laburretarako eta dokumentaletarako. Puerto, bestalde, ingelesezko itzulpen konpainia bateko arduradun teknikoa da Logroñon.





Los videojuegos para ZX Spectrum se vendían en casete. 'Hundra' no fue menos. (Foto: Jesús Martínez del Vas)



Los juegos eran tan difíciles que las revistas publicaban todo tipo de mapas y ayudas. (MicroHobby. N° 171. Págs. 34 y 35)

QUINCENAL  
250  
Ptas.

**MICRO  
HOBBY**  
NUESTRA REVISTA ES UN REGALO DE PREMIOS EN CADA UNO DE NUESTROS NUMEROS

WINDRA OPEN AREA Y NUM. 171

VOLUNTARIADO  
**APRENDE  
A HACER  
TU PROPIO  
JUEGO**

PLATA 3  
**EDITOR  
DE SECTORES**

WINDRA  
**DECLARACION  
RENDA 87**

WINDRA  
**"HUNDRA":  
PURA SANGRE VIKING**

**"MAD MIX" "GARFIELD" "HASTAN"  
"PHM PEGASUS" "EYE"**



ROBERT PRESS

Raúl y Ricardo entraron por la puerta grande con una portada de 'Hundra', su primer videojuego comercial. (MicroHobby. N.º 171. Portada)

**iNUEVO!**

**MICRO HOBBY**

**EL REINO DE LUKK**

Jorand, rey de los vikings, padre de nuestra revista protagonista, ha caído en los engaños de Lodi, dos vikingos de la mentira. Dicho engaño ha tenido como consecuencia el encierro de Jorand en el reino de Lukk, del que nada ha regresado jamás.

**HUNDRA**  
Video-aventura  
Dinámico

El juego comenzó en un momento en que vivían Jorand y sus hijos en un pueblo de los vikings. En él se encontraban los padres de las revistas que les damos, al igual que a nosotros, en el momento en que nosotros nos encontramos hoy.

Así Jorand, al igual que Lodi y sus hijos, se fue a un pueblo de los vikings. En el momento en que nosotros nos encontramos hoy.



Los dos hermanos se fueron a vivir a un pueblo de los vikings. En el momento en que nosotros nos encontramos hoy.

**iNUEVO!**

**MICRO HOBBY**

**HUNDRA**

en el juego también aparecieron los personajes de los videos y la música, y los demás personajes que se encuentran en el juego.

**HUNDRA**  
Video-aventura  
Dinámico

El juego comenzó en un momento en que vivían Jorand y sus hijos en un pueblo de los vikings. En el momento en que nosotros nos encontramos hoy.

Así Jorand, al igual que Lodi y sus hijos, se fue a un pueblo de los vikings. En el momento en que nosotros nos encontramos hoy.



**iNUEVO!**

**MICRO HOBBY**

**HUNDRA**

en el juego también aparecieron los personajes de los videos y la música, y los demás personajes que se encuentran en el juego.

**HUNDRA**  
Video-aventura  
Dinámico

El juego comenzó en un momento en que vivían Jorand y sus hijos en un pueblo de los vikings. En el momento en que nosotros nos encontramos hoy.

Así Jorand, al igual que Lodi y sus hijos, se fue a un pueblo de los vikings. En el momento en que nosotros nos encontramos hoy.



'Hundra' supuso el inicio del desarrollo de videojuegos de Zeus Software (MicroHobby. N.º 171. Págs. 39 y 40)

HA SIDO UNA DURA JORNADA, AHORA...

...¡DISFRUTA CON TU CHICA!

AMSTRAD · SPECTRUM · MSX-MSX2 · disco

¡DEBERÍA COMPRAR EL COMPRESOR AXIAL... SUENA MAL!

¡HEY... ¡NOKIS A LAS TRES!!

¡CUIDADO!

PERFECTO EL SISTEMA DE RETROPROPULSORES...

¡TROMPOS AHI ENFRETE!

¡AH, CON QUE ESAS TENEMOS, TOMA...

¡UUF! ¡A PUNTO ESTUVE DE CAER AL VACÍO!

LOS RUIDOS DE LA NOCHE SON LA MÚSICA QUE ENVUELVE ESTA AVENTURA

¡TOMA LEÑA, MALDITO DRAGÓN!

MALDITA PIRAÑA ¡ME HA ROTO EL VESTIDO!

¡MURCIELAGOS! ¡QUE ASCO!

PLAZA DE ESPAÑA 18 TORRE DE MADRID 27-9-2008 MADRID TELEF. 4124 0507 E  
PEDIDOS CONTRA REEMBOLSO: (91) 542 72 87 (línea Cobac) · TIENDAS Y DISTRIBUIDORES: (91) 401 41 77 - 401 28 11 (NUEVO TELEF.)

DINAMIC

Clásica publicidad de Dinamic que solía utilizar para promocionar los juegos de realizados por equipos externos. (MicroHobby, N° 35. Contraportada)



**¡NUEVO!**

## EMPEZANDO CON MAL PIE

**DELFOX**

**Arcade**

**100% by Dinamic**

Este «Delfox» perteneciente al nuevo sello 100% by Dinamic, es una auténtica delicia. Y es que, a bordo de tu nave espacial, láser en mano y cañón es ristre, te puedes poner «morao» a matar naves enemigas. O sea, que acostumbrados a la super-ultra-recontra dificultad de la mayoría de los juegos de Dinamic, jugar con este «Delfox» resulta más sencillo que matar viejas con bazooka.

Lamentablemente, la dificultad no es la única característica que se echa de menos en este juego. A pesar de que técnicamente no está mal del todo, (buen scroll doble y rápido movimiento) su desarrollo es tan sumamente repetitivo (naves, naves y más naves), que a los pocos minutos de juego empieza a hacerse como bastante pesado. Por otra parte, el diseño de los gráficos tampoco contribuye lo más mínimo a que la cosa gane algo de variedad, pues desde el principio al fin del programa te aparecen los mismos y sosos tipos de enemigos que repiten sus monótonos e


inagotables movimientos.

Todo este cúmulo de virtudes sería suficiente como para afirmar que «Delfox» es una auténtica castaña pilonga, pero si a esto le unimos el hecho de que cuando llevas varias partidas es posible que te encuentres con la desagradable sorpresa (a nosotros nos ha pasado) de que al matar a las naves enemigas empiecen a aparecer unos extraños atributos en la pantalla, la cosa empieza a resultar más que desagradable.

Roguemos a los dioses del Olimpo por que este primer título no tenga nada que ver con el resto de programas que compondrán



este nuevo sello de Dinamic.



Dinamic intentó reflotar una línea de juegos baratos con 'Delfox'. (MicroHobby, N.º 180, Pág. 38)

## POR UN PUÑADO DE PILAS

**COMANDO TRACER**

**Arcade**

**Dinamic**

La evolución tecnológica siempre ha tenido sus ventajas y sus inconvenientes y, en el año 2046, la confederación de planetas Xator estaba sufriendo estos últimos, ya que habían sido invadidos y arrasados por una raza de andróides con inteligencia casi humana.

La única solución era destruir los planetas y, para este fin, se habían dispuesto una serie de detonadores por la faz de cada uno de

ellos, dependiendo su número de su diámetro. Así, para destruir Alford hacían falta seis detonadores, ocho para Zoraz y diez para Grisum. Los detonadores necesitan para ser activados de unas pilas de diferente color (rojo, verde y blanco) que se encuentran repartidas por los planetas de forma aleatoria. Esta va a ser tu misión: recoger dichas pilas e ir activando cada uno de los detonadores, tras lo cual deberás salir volando del planeta en cuestión antes de que vuele en mil pedacitos y todo quede reducido a polvo de estrellas. Además de las pilas podrás encontrar opciones para aumentar la energía de la nave, inmunidad temporal, disparo continuado o pa-



30 MICROHOBBY

Microhobby puntuó con cinco estrellas el último juego que Zeus Software hizo para ZX Spectrum (MicroHobby, N.º 188, Pág. 30)





Dinamic se inventó el término FX Synchrosprites para destacar la suavidad del scroll de los juegos de Zeus Software (Micromanía. 2ª Temporada. N° 10. Pág. 41)

# INVADEN TU PANTALLA!

**¡SÓLO PARA AMANTES DE LAS EMOCIONES FUERTES!**

**KRUGGER** no es una máquina. Ni siquiera es un héroe. Pero sólo alguien como él puede atacar la más impenetrable de las fortalezas con alguna probabilidad de éxito.

Alévete con **BESTIAL WARRIOR**; un videojuego con cuatro emocionantes fases repletas de peligros y acción en las que tendrás que enfrentarte a los más terribles enemigos: desde androides a serpientes bíblicas. **DINAMIC** te propone un juego que te sorprenderá.



**DINAMIC**

UNIVERSAL AMBITUS, S.A. (CATALUÑA) SPECTRUM, AMBITUS, MUSE (BRUSOLES), PC

El juego de Julio Santos recuerda al clásico 'The Sacred Armour of Antiriad'. (MicroHobby. N.º 189. Pág. 41)



**¡NUEVO!**

## UN MAGNUM Y UN TIO MUY BESTIA

<b>BESTIAL WARRIOR</b>
<b>Arcade</b>
<b>Dinamic</b>

Sagar, la mayor fortaleza jamás conocida por el hombre, se había convertido en un reto para la mayoría de los mercenarios. Muchos habían muerto ya en el intento de acceder a Sagar.

Sólo una persona, si es que se le puede denominar así, podría ser capaz de superar el sistema rocoso Kerman y entrar en la fortaleza. Su nombre era Krugger, aunque la mayoría de sus enemigos le conocían como Bestial Warrior.

Armado hasta los dientes, se introducirá en el sistema y necesitará de vuestro con-

tról y ayuda para poder alcanzar su meta: encontrar las tres partes de la C70-Magnum, un arma devastadora.

Durante el recorrido podréis encontrar objetos que dan mayor potencia a vuestra arma, vidas extra, inmunidad temporal y células de carga, de mayor importancia, ya que son las que permiten el acceso de un nivel a otro tras encontrar la pantalla de desplazamiento.

Los enemigos son de diferentes tipos, todos bastante pesados y agresivos, destacando los Bartoks, que guardan las salidas a los diferentes sectores y necesitan de una gran cantidad de disparos para ser abatidos.

«Bestial Warrior» es el típico arcade de multitud de pantallas, enemigos y objetos, que hace un par de años no hubiera estado mal.

Pero las cosas han cambiado mucho en este mercado y a un arcade se le exigen más cosas. No es que el programa sea malo, ya que los gráficos son aceptables, el movimiento correcto y el desarrollo puede ser entretenido, sino que creemos que la mayoría de vosotros espera algo más que un programa medio cuando hablamos de Dinamic, y la verdad es que en esta ocasión no han alcanzado el nivel al que nos tienen acostumbrados.

Un detalle de este programa que resulta verdaderamente original y que sí merece la pena ser destacado es que se ha realizado otra versión para Gunstick en la que tú debes proteger a Krugger de los múltiples enemigos, ya que él se mueve automáticamente, y esto sí que es una interesante novedad para los juegos de pistola.






El donostiarra Julio Santos, amigo de Ricardo y de Raúl, fue el responsable del 'Bestial Warrior' (MicroHobby. N.º 189. Pág. 41)

# Maite Rodríguez y Ricardo Puerto

DE ZEUS SOFTWARE



Después de todo lo leído hasta este instante, es fácil deducir que Zeus no es un equipo que acabe de empezar en esto de la programación. Muy al contrario, llevan muchos años metidos en este mundillo, cuentan con un currículum pocas veces visto en el soft español actual y, además, no es la primera ocasión en que colaboran con Dinamic Multimedia.

«Energy» es su sexto proyecto -profesional, por así decirlo-. Han trabajado en el mundo de las recreativas, «-Biomechanical Toy» -«donde se aprende muchísimo», comenta Ricardo Puerto, programador de «Energy». «Es un mundo totalmente distinto de los ordenadores domésticos. Tu juego debe demostrar un atractivo total para alguien que está viéndolo, y que le decida a gastar su dinero en una o varias partidas.» Pero también han pasado -algo

que existen en todo el mundo.

Pero, incluso con esta amplia experiencia a cuestas, llega la hora de afrontar «Energy». Y la primera cuestión es casi obligada. El hecho de presentar una aventura 3D con una protagonista femenina, ¿no hará recordar demasiado a «Tomb Raider»?

«Bueno», comenta Maite Rodríguez, guionista y diseñadora del juego, «la historia es muy distinta, el concepto es diferente y, aunque pueda parecer poco creíble, cuando comenzamos a trabajar en «Energy» -hace casi dos años-, «Tomb Raider» era sólo un proyecto que poca gente conocía. Puede que alguien intente ver alguna coincidencia, pero no existen. De hecho, el primer esbozo de «Energy» presentaba varios protagonistas, entre los que se encontraba Yiria, que sólo era uno más. No creemos que nadie vaya a ver

«El juego se planteó desde el comienzo», comenta Ricardo, «como algo especial. Un título espectacular, si quieres, que se saliera de lo normal. Por eso el hecho concebirlo como un producto tecnológicamente avanzado era importante. Ahora estamos trabajando con una base de D3D, pero se incorporarán más opciones en la versión final.» Desde luego, es difícil aventurar lo que puede ocurrir a más de medio año vista, en cuestión de hardware, pero las opciones estarán incluidas en el juego.




